



**Arartekoaren 2021R-170-20 Ebazpena, 2021eko urriaren 5koa. Horren bidez, Lan eta Enplegu Sailari gomendatu zaio berrius dezala pertsona bati diru-sarrerak bermatzeko errentaren prestazioa jasotzeko eskubidea iraungitzeko erabakia, lan-
eskaintza bati ezetz esan izana bermatzen duten gutxieneko formazko bermeen faltagatik.**

Aurrekariak

1. Erakunde honek herritar batek abiarazitako kexa izapidetzeko onartu zuen. Kexan, Arartekoaren esku-hartzea eskatu zuen, bera titularra zen diru-sarrerak bermatzeko errentaren prestazioa eten ziotelako.

Interesdunak azaldu du pertsona bakarreko bizikidetzaren unitatea osatzen duela (dibortziatuta dago), eta bi alabei mantenu-pentsioa ordaintzen diela; diru-sarrerak bermatzeko errentaz gain, ez du beste diru-sarrerarik.

Aipatu duenez, 2019ko irailean, Lanbiderekin batera lan egiten duen enpresa baten telefono-dei bat jaso zuen laneko elkarrizketa bat hitzartzeko; lana minbiziaren aurkako kanpaina baterako emaileen bilaketan zetzan.

Lanbidez pintorea bada ere, kexagileak dio elkarrizketara joateko eragozpenik ez zuela eta joan beharreko helbidea zein zen galdetu zuela, baina telefono-deia egin zuen pertsonak beharrezkoa ez zela adierazi ziola.

Hala ere, 2019ko urriaren 22ko ebazpenaren bidez, Lanbidek haren eskubidea iraungitzea erabaki zuen, honako honetan oinarrituz: “BUren edozein kidek lanbaldintzen hobekuntza bati uko egiten dionean inolako justifikaziorik gabe.”

Interesdunak aukerako berraztertze errekurtsoa jarri zuen, kexa aurkeztu zen unean oraindik ebatzi gabe zegoena.

2. Arartekoak informazio-eskaera bat egin zion Lanbideri. Eskaera horren bidez aurretiazko egitateen inguruko informazioa eskatu zen eta, errepikakorrek ez izateko, aurrerago aipatuko diren hainbat gogoeta helarazten zitzaizkion lanaren erakunde publikoari.

Lanbideko zuzendari nagusiak bidalitako erantzunean, hau adierazi da hitzez hitz:

“Eskaintzako (erreferentzia-zenbakia: xxxx) hautagaien emailei buruzko txostenean argi jasotzen da XXX jauna ez zela aukeratu lanpostuari borondatez uko egin ziolako. Txosten hori nahikoa da 18/2008 Legearen 28.1.i artikuluan (18/2008 Legea, Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzekoa) jasotzen den diru-sarrerak bermatzeko errenta azkentzeko kasua ematen dela frogatzeko. Beraz, 2019ko urriaren 22an, XXXX espedienteko diru-sarrerak bermatzeko errenta jasotzeko eskubidea





azkentzeko ebazpena eman zen, XXXX berrikuspen-prozeduraren barruan. Espediente horretan behar bezala aztertu zen gertaera hori justifikatzen zuen muturreko arrazoirik eman zen, edo enplegua ez bazen egokia interesdunarentzat.

Lanbide–Euskal Enplegu Zerbitzuko lan-orientazioko zerbitzuek ez zuten horiei buruzko txostenik egin. Halaber, argi utzi behar da, kasu honetan, beste askotan bezala, lan-eskaintza ez zuela Lanbide–Euskal Enplegu Zerbitzuak egin, bitartekari hutsa izan baita; eskaintza hirugarren entitate batek egin zuen, hautaketa-prozesua egin zuen entitateak. Entitate horrek egoki irizitako moduan egin ditu hautaketa-prozesua eta jakinarazpenak. Ez da Lanbide–Euskal Enplegu Zerbitzuaren eskumena entitate horri ezartzea Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 40. artikuluan eta hurrengoetan ezarritako jakinarazpen-bideak aplikatzeko, zuzenbide pribatukoa izan baitaiteke.

Bestalde, kasu honetan jakinarazpena ondo egin zen, interesdunak espedientean egindako alegazioetan azaldutakoaren arabera, bazekielako zein zen lan-eskaintzaren edukia.”

Gogoetak

1. Diru-sarrerak bermatzeko errentaren araudiak ezartzen du prestazioen hartzaileak enplegu egoki bati edo enpleguaren baldintzak hobetzeari uko egitea prestazioa iraungitzeko arrazoietako bat dela (horren ondorioz, urtebetez ezin da prestazioa berriz eskatu, abenduaren 23ko 18/2008 Legearen 28.3 artikuluan arabera). Hala ere, Arartekoaren ustez, gaur egun legezko aurreikuspen hori aplikatzeko moduak ez ditu behar besteko bermeak ematen.

Jakinarazi beharreko administrazio-egintzei dagokienez, eta jakinarazpen horren ondorioei dagokienez, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015¹ Legearen 40.1 artikulua honako hau xedatzen du: *“1. Administrazio-ebazpenak eta egintzak ematen dituen organoak haien berri jakinaraziko die beren eskubide eta interesak ukitzen dizkien interesdunei, ondorengo artikuluetan aurreikusitako moduan.”*

Lege bereko 41.1 artikulua xedatzen duenaren arabera, *“erabiltzen den metodoa erabiltzen dela ere, jakinarazpenak baliozkoak izango dira aukera ematen badute jasota geratzeko bidali dela edo eskura jarri dela, interesdunak edo haren ordezkariak jaso duela edo hartara irispidea izan duela, data eta ordua, eduki osoa, eta bidaltzailearen eta hartzailearen identitate fidagarria. Egindako jakinarazpenaren egiaztatzea interesdunari gehituko zaio.”*

¹ <https://www.boe.es/buscar/act.php?id=BOE-A-2015-10565&p=20210710&tn=1#a40>



Konstituzio Auzitegiaren² doktrinak azaltzen duen bezala, jakinarazpenak hartzaileari egintzaren edo ebazpenaren berri ematea du helburu, horiek beraien eskubide eta interesen defentsarako egokien deritzoten jarrera har dezaten, eta, horregatik benetako babes judizialaren nukleoko funtsezko elementua dira (Espainiako Konstituzioaren 24.1 artikulua).³

Arartekoaren iritziz, hautaketa-prozesu batean parte hartzeko proposamena egitea, berez, egintza kalifikatua da, eskubide subjektiboa azkentzeko arrazoia izan daitekeelako; beraz, baditu ondorio juridikoak pertsonen eskubide eta interesen esparruan.

Hau da, modu ez-zuzenean prozeduraren emaitza erabakitzen duen egintza bat da, egiten den moduaren arabera defentsa-gabezia sortu dezakeena pertsona interesatuarentzat (eta hori ordenamendu juridikoak debekatu egin du, EKren 24. artikuluan xedatutakoa oinarri hartuta). Defentsa-gabezia hori, bestalde, areagotu egin daiteke prestazio horien titularra den kolektiboaren arabera, gehienbat gizarte-bazterketako egoeran dauden pertsonak, egoera ahulean daudenak eta, batzuetan, Euskadiko hizkuntza koofizialak menderatzen ez dituztenak izan ohi direlako.

Illo horretatik, garrantzitsua da adieraztea Lanbidek, prozesuaren arduraren duen erakundea den aldetik, prozedura-berme horiek betetzea eska diezaiokeela erakunde laguntzaileari, berme horien jatorria pribatua den edo ez alde batera utzita, arrazoizkoak baitira, eta egiten duten bitartekaritza-funtziorako egokiak.

Administrazio doktrinak⁴ "administrazio-zuzenbidearen hedapen egokitzalea edo ordeztalea" izena jarri dio eta horrela azaldu daiteke: *"subjektu eta erakunde benetan pribatuetan proiektatzen dena, baina beren funtzioengatik agintaritza publiko baten antzeko egoeran jartzen direnak hirugarrenetik, alde bakarreko erabaki-ahalmenekin. Funtzio publikoak modu pribatuan betetzeak ez luke eragotzi behar berme-arau juridiko-publiko jakin batzuk aplikatzea (beraz, administrazio-zuzenbide hedatua, baita erabakiak zuzenbidearen arabera berrikusteari dagokionez ere), batez ere bere jardunaren subjektu pasiboari dagokionez."*

Kexa-espeditente honetan, kexagileak onartu du lan-eskaintza kudeatu zuen enpresa laguntzailearen telefono-deia jaso zuela, baina ukatu egin du erabat eskaintzari uko egin zionik, eta ezin da izandako elkarrizketaren eduki zehatza jakin, deia ez baitzen modu formalean jaso, nahiz eta erabakigarria izan diru-

² Konstituzio Auzitegiaren 155/1989 Epaia, urriaren Sekoa, 2. OJ; Konstituzio Auzitegiaren 59/1998 Epaia, martxoaren 16koa, 3. OJ; Konstituzio Auzitegiaren 221/2003 Epaia, abenduaren 15koa, 4. OJ; Konstituzio Auzitegiaren 55/2003 Epaia, martxoaren 24koa, 2. OJ.

³ "1. Pertsona guztiek dute epaileen eta auzitegien babes eraginkorra jasotzeko eskubidea, beren zilegizko eskubideak eta interesak erabiltzeko, babesik eza sekula ere gertatu barik."

⁴ ADMINISTRAZIO-ZUZENBIDEAREN HEDAPENA ETA ADMINISTRAZIOAREKIKO AUZIEN PROIEKZIOA. Rafael Caballero, Madrilgo Unibertsitate Konplutentseko Administrazio Zuzenbideko katedraduna. Zuzenbide Publikoko Aldizkaria: Teoria eta Metodoa-Marcial Pons 4 | 2021 pp. 7-65 Madril, 2021.





sarrerak bermatzeko errenta bezalako eskubide subjektibo bat mantentzeko edo galtzeko.

Bestalde, enpresa laguntzaileko langileak ez dira funtzionario publikoak; beraz, espediente honetan ez da aztertu izandako elkarrizketaren edukia, ez baitago halakorik, baizik eta eskubide bat azkentzeko jarraitutako prozedura ordenamendu juridikora egokitzen den edo ez.

2. Hemen azaldutakoaren antzeko gertakarien ondorioz erakunde honek izapidetu dituen espedienteen artean, 1941/2018/QC⁵ ofiziozko jarduketa nabarmendu behar da, jasotako keak aztertuta hasi zena. Jarduketa hartan, Arartekoak diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazio osagarria azkentzeko prozeduraren gogoeta batzuk azaldu zituen lanpostu bat betetzeko langileak hautatzeko prozesuetan parte hartzea ez onartzeagatik edo enplegu bat baztertzeagatik, horietarako komunikazioa telefonoz egiten den kasuetan, eta, amaitzeko, gomendio hau egin zuen:

“Lanbidek modu bermatzaile batean jakinaraztea hautapen-prozesuan derrigorrez parte hartzearen beharra, edo lan-eskaintzaren edukia eta eskaintzen diren lan-baldintzak. Horrez gain, ukatzeko justifikatutako arrazoirik ez badago, hautapen-prozesuan ez parte hartzeak edo enplegua ukatzeak diru-sarrerak bermatzeko errentaren prestazioa jasotzeko eskubidean izan ditzakeen ondorioak jakinarazi beharko ditu.

Espedientean, modu frogagarrian jasotzea diru-sarrerak bermatzeko errentaren titularrari eta bizikidetzaren unitateko kideei bidalitako informazioa eta jakinarazpenak egiteko saiakerak, baita interesatuek enpleguari uko egiteko edo hautapen prozesuetan ez parte hartzeko alegatutako arrazoiak.”

Lehenago eta, bereziki, Lanbidek 2017. urtean egindako *Lanbidek diru-sarrerak bermatzeko errentaren eta etxebizitzarako prestazio osagarriaren prestazioen kudeaketa hobetzeko proposamenak jasotzen dituen txosten-diagnostikoaren* 40. eta 41. gomendioetan, erakunde honek honako hau gomendatu zion Lanbideri:

“40. Lanbidek modu bermatzaile batean jakinaraztea hautapen-prozesua, lan-eskaintzaren edukia eta eskaintzen diren lan-baldintzak. Horrez gain, ukatzeko justifikatutako arrazoirik ez badago, hautapen-prozesuan ez parte hartzeak edo enplegua ukatzeak diru-sarrerak bermatzeko errentaren prestazioa jasotzeko eskubidean izan ditzakeen ondorioak jakinarazi beharko ditu.

⁵ https://www.ararteko.eus/RecursosWeb/DOCUMENTOS/1/1_4954_1.pdf



41. Espedientean islatzea jasotako informazioa eta egindako jakinarazteko saiakerak, baita enplegua ukatzeko edo hautapen-prozesuan ez parte hartzeko arrazoiak ere."

Zoritxarrez, Lanbidek ez zuen 1941/2018/QC ofiziozko espedientean zehar egindako informazio-eskaera erantzun, ezta izapidetzea bukatutakoan egindako gomendioa bete ere; eta, gauzak horrela, espedientearen itxierari ekin zitzaion, gomendioa ez zela aintzat hartu ondorioztatuz.

3. Kasu honetan, interesdunak ukatu egin du enplegu-eskaintzaren jakinarazpena egindako elkarrizketaren eduki zehatza zein izan zen jasotzen duen bitarteko baten bidez egin zenik, eta zorrotz ukatu du langileak hautatzeko elkarrizketan parte hartzeari uko egin zionik; horrek esan nahi du zalantzan jarri behar dela eskaintza egin zuen erakunde laguntzaileak jasotako informazioa.

Baieztapen hori egitatearekin bat dator, Lanbideko zuzendari nagusiak bidalitako txostena irakurri ondoren baieztatu baita erakunde horrek aurretik aipatutako gomendioetan proposatutako gutxieneko bermeak ezarri gabe jarraitzen dutela: hala nola mota horretako telefono deietan, deiak egiten dituzten pertsona eta erakundea (Lanbide edo azpikontrataturako beste erakunde bat) identifikatzea; deia egiten duena funtzionario bat den (kasu horretan haren adierazpenak egiazkotasun-presuntzioa izango zuelako) edo, bestela, kontratatutako erakundeko langile bat den azaltzea; elkarrizketaren eduki zehatza gordetzea; eta hautaketa prozesuan parte ez hartzeak izango zituen ondorioez abisatzea eta informatzea deia jasotzen duenari.

Berme horiek froga objektibo eta behin betiko elementu izango lirateke honako kasu hauetan: alde batetik, enpresa eskaintzaileak, Lanbideren kolaboratzaileak, dagokion hautaketa-prozesuaren txostenean, oro har, prestazioen titular baten "borondatezko ukapena" jaso besterik ez du egiten, eta, aldi berean, hark ukatu egiten du ukapen hori gertatu denik.

Lanbideko zuzendari nagusiak bidalitako idazkian bertan, berariaz onartzen da Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko lan-orientazioko zerbitzuek ere ez zutela txostenik egin ustezko arbuioa justifikatzen zuen muturreko kausarik zegoen edo enplegua desegokia ote zen interesdunarentzat.

Laburbilduz, esan daiteke Lanbidek edo erakunde horren erakunde laguntzaile batek telefono bidez egindako lan-eskaintza bati uko egitea, azken finean, diru-sarrerak bermatzeko prestazioa edo etxebizitzarako prestazio osagarria jasotzeko eskubide subjektiboa azkentzeko ebazpenen oinarri nagusia dela. Lan-eskaintza egiteko erabiltzen den bidea administrazio-espedientearen oinarritzko osagai bihurtzen da eta horrek gutxieneko berme formal batzuk ezartzea beharrezko egiten du interesdunen defentsa gabezia saihestu nahi bada. Erakunde honek uste du, ikusitakoak ikusita, esku artean dugun espedientean ez direla gutxieneko berme horrek errespetatu.





Horregatik guztiagatik, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak –erakunde hau sortu eta arartzekoak– 11.b) artikuluan xedatutakoarekin bat eginez, honako iradokizun hau egin nahi diogu sail horri:

GOMENDIOA

Arartekoak Eusko Jaurlaritzako Lan eta Enplegu Sailari gomendatzen dio, kasu honetan, eta aurreko gogoetak kontuan hartuta, kexagilearen diru-sarrerak bermatzeko errentaren prestazioa azkentzeko ebazpena berrikus dezala, ustez enplegu-eskaintza bati uko egin izana oinarri hartuta, haren jakinarazpenak ez baitzituen betetzen haren edukia eta irismena ezagutzea ahalbidetzen duten gutxieneko berme formalak, horrek dakartzan ondorio ekonomikoekin.

